

BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,
Eusco Icascuntzaren pribilegioatequin,
Zehazten mercatalecheac, Artem moldizteguien.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,
por la casa de comercio de Zehazten, en la imprenta de Artem.

Tolosan 1809co agorrillaren 24an. Londresco Estafeta, Donostitic iritsia.

Tolosarrac, azquen aldiz bisitan izan cenuten eta guiltzapetzeric izan ez duten eta inoiz guiltzapetuco ez duten Baionetan aguintu nizuen becela azquen berriac dacarquizuet, aguintu becela oso osoric contatuac, naiz eta Inperioaren borrotero auen cateac onartzen ez dituzuenontzat garratzac guertatzen zaizquizuen.

Bonaparte I.co guizotso eta Europaco Tiranoac garaitecin dirau Marteren celaiian. Aguien joandaco jorraillaren amaieran Austrian asitaco canpañaren berriac iritsico citzaizquizuen. Aguien Eckmuhl, Ebersberg, Aspern eta Wagram bezalaco icenac ezagunac dituzue. Badaquizute beraz, ingles eta prusiarrac bazterrean utzitaco eta beste tirano bat den Errusiaco Alejandro I.coaren laguntzaz Guizotsoac zanpatutaco Austrian iltzalle basati horrec irabacitaco guduen icenac dirala.

Esling-en eta Lobau-co ugarteac bacarric izan dute alde austriarrac armen fortuna. Baña ez dute ecertaraco balio izan garaipen orieci ezta Guizotsoaren morroi nagusienetaco cen Lannes mariscalaren, Europa osoraco conparacio izan den Zaragozaco iri eroiaren borroteroaren, etiotzac ere. Egun daquigunez Tiranoac bere baldintzac ezarri ditu Vienan, oi bezala, fusilen meachupean laster sina aracico duen Itzarmen batean bilduco diranac. Onela il da gure icharopen urrien eguzqui errenaren beste printza bat.

Tolosaco berriac. Bertan icusiac.

Europaco guertacari char auen ondorioac gure errian vandalo berri auec eta beren gueieguiqueriac jasatean bici ditugu.

Gure calteraco guizachar auen gosea eta ari cerbitzatzen dioteana, orain dela cenbait illabete bezain aundia da. Ilustratu zaitetzen conparacio becela, jaquizute jorraillaren reco arratsa eta lorailaren 24a bitartean bacarric Austriaco bidean gure artetic pasa ciren Junot general jaunac eta Jose Ia ustezco erreguearen comisarioa dela dioen Francisco de Amorosec bacoitzac bere aldetic erreal mordo ederra gastatu zutela jaqui finetan, Ana Maria de Achac emandaco facturetari icus litequenez. Orietan beste jaqui finen artean legatzac, amurraiac, oquela, bildotsac beren tripoche eta barruqueiquin, cherri solomoac, urdai guiartsu eta guicenac, gurina, chiquito ardoac, chacolina eta Burdeosco ardoac, Endaiaco patarra, chocolata, boladuac, sagarrac, inchaurrac, limoiac, Holandaco eta bertaco gazta eta dultzea aipatzen dira. Ez gaitecen ordea zorrotzac izan gure juicioetan, Amoros jaunac bearrezco izango du ondo asetzea, "Guardias Nacionales" icen ordeco traidore taldeen antolatzeac gosea piztuko baitio, Europaco Tiranoa berberaren generalec izan dezaquetenaren tanqueracoa. Eta ez da au aipatutaco zaldun onec sufritzen duen lan bacarra.

Jaquizute, jorrailla aldera, 124.000 errial ordaintzera beartzeco gutun bat idazteco lantegui adeitsua eguin zuela gainera. Cioenez ura cen berac eta bere nagusieci gure probintzia osoari ezarriraco 2 milloico derrigorrezco contribuciotic cegoquigun copurua. Gure errian aieci cerbitzatzen dituen chochonguiloz osatutaco udalbatzac ez zuen inolaco calteric izan odolustuqueta ori onartzeco. Erabaqui ori lorailac 2 eta 3a bitartean artu zuten gainera, orain urtebete egun orietan lendabici Madriden eta ondoren ainbat erri eta irietan gaintzeco vandalo auec su ta gar erabillitaco gogorqueria omendu nai balute bezala.

Neurrigabeco copuru onequin, dudaric gabe gure propio eta herrilurretatic ordainduco dena, traidore auec "Ejercito" deritzoten eta bidean aurquitzen duen guztia jaten duen eta, joandaco garagarrillaren 30eco beren batzarrean aguertu zutenec, beraieci ere beldur dioten plaga orren gastaoc ordainduco dira. Berri au, gainera datorquizuena ezagutu dezazuten esaten dizuet, Thouvenot generala delaco batec eta beste morroi asecaitz orietaco bat den Aldaz comisario jaunac Donostitic bidali dituzten aldarricapenac gaur bertan pulpitic iracurtzen dizquizutenecan. Azquen honec, Guizotsoac eta bere anaieci gure probintzian duten gendarme nagusia denac, oraindieci gure contura oturuntzaric eguin ez duen arren -zaudete laster eguingo du eta-, Amoros jauna bezain gaiztoa da. Aldarricapen orietan leguezco gobernua antolatutaco lurreco corsarioen tropeci, duela cenbait egun gure etsaieci borrocatzera Nafarroatic Oiartzun, Ataun eta Beasainen sartu direnei, "gaizquille" eta "bidelapur talde" deitezco ausardia dute.

Ez entzun bada orrelacoric esaten dizuenei eta oroitu lurreco corsario auec benetan cer diren: Portugalen bilduac dauden bezalaco gudaroste berrien acia, datocen illabete eta urteetan, European guertatuac guertatu, crudelqui zanpatzen gaituzten eta egun Guipuzcoan dauden eta, ederqui daquizutenec, auquitutaco guztia osten duten benetaco lapur bacarrac azquenean garaituco dituztenec.

Agurtzera nijoa gaurcoz, baña zaudete ciur guchi barru izango dezutela benetaco berriac besteric ecartzen ez dituen Baioneta onen berri.

En Tolosa, a 24 de septiembre de 1809. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.

Tolosarrac, tal y como os prometí la última vez que os visitó esta Bayoneta, que no han encerrado ni lograrán encerrar jamás, os traigo nuevas noticias y también tal y como os prometí entonces os las contaré en su integridad, por amargas que os resulten a vosotros, que no aceptáis el yugo de estos verdugos imperiales.

Bonaparte I, el Ogro, el Tirano de la Europa, sigue siendo invencible en el campo de Marte. Quizás os han llegado ya nuevas de su campaña en la Austria, iniciada a finales de este mes de abril pasado. Los nombres de Eckmuhl, Ebersberg, Aspern y Wagram acaso os serán conocidos. Sabréis entonces que son los de tantas otras batallas ganadas por ese bárbaro asesino en una Austria abandonada a su suerte por ingleses y prusiacos y que ha sido vapuleada por el Ogro con la ayuda de otro tirano como lo es Alejandro I de Rusia.

Sólo en Esling y en la isla de Lobau, la fortuna de las armas fue favorable a los austriacos. Mas de nada han servido esas victorias ni la muerte de uno de los principales lacayos del Ogro, el mariscal Lannes, verdugo de esa heroica ciudad de Zaragoza que ha servido de ejemplo a la Europa toda. Por lo que sabemos a fecha de hoy, el Tirano impone sus condiciones en Viena en un infame Tratado que seguramente obligará a sellar en breve y a punta de fusil, como tiene por costumbre. Así sucumbe otro rayo del vacilante sol de nuestras cortas esperanzas.

Noticias de Tolosa. Observadas del natural.

La consecuencia de tan malos sucesos en la Europa se traduce en nuestra villa en tener que soportar a estos modernos vándalos y todos sus abusos.

Para nuestra desgracia el apetito de esta canalla, y el de quienes la sirven, sigue siendo tan excelente como lo era meses atrás. Como muestra para ilustraros os bastará saber que, entre la noche del 5 de abril y el día 24 de mayo, el señor general Junot, que pasó por aquí camino de Austria, y Francisco de Amorós, comisario que dice ser del supuesto rey José I, gastaron, cada uno por su cuenta, una bonita cantidad de reales en consumir exquisitos bocados al decir de las facturas entregadas por Ana María de Acha. En ellas se habla de, entre otras gollerías, merluzas, truchas, carne, corderos con sus menudillos y asaduras, lomos de cerdo, tocinos magros y gordos, manteca, vino chiquito, chacolín y de Burdeos, aguardiente de Hendaya, chocolate, bolaos, manzanas, nueces, limones, queso de Holanda y del País, y cajas de dulce. Mas no seamos duros en nuestro juicios, el señor Amoros de seguro necesitará alimentarse bien, ya que el organizar partidas de traidores bajo el supuesto nombre de "Guardias Nacionales" debe abrirle ese apetito que, como veis, rivaliza con el de los generales del mismísimo Tirano de la Europa. Y no es ese el único trabajo que sufre este citado caballero.

Debéis saber que además hizo el gentil esfuerzo de escribirnos, allá por abril, una carta para obligarnos a pagarle 124.000 reales. Decía que esa era la cantidad que nos tocaba de los 2 millones que él y sus amos han impuesto como contribución forzosa a toda nuestra provincia. El Ayuntamiento de títeres que desde nuestra villa les sirve, no tuvo empacho en aprobar esa sangría. Y con gran sentido de la ocasión lo hizo entre los días 2 y 3 de mayo, como si así rindieran tributo a la violencia con la que un año antes por esas mismas fechas estos vándalos se impusieron a sangre y fuego, primero en Madrid y luego en otras muchas villas y ciudades.

Con esa desafortada cantidad que, sin duda, saldrá de nuestros propios y comunales, se pagarán los gastos de esa plaga que estos felones llaman "Ejército" y que todo lo devora a su paso y a la que incluso temen ellos mismos, como bien lo demostraron en su reunión de este último día 30 de junio. Noticia ésta que os comunico para que sepáis a qué ateneros cuando hoy mismo os lean desde el púlpito ciertas proclamas remitidas desde San Sebastián por un tal general Thouvenot y por otro de esos lacayos insaciables, el señor comisario Aldaz, principal gendarme en nuestra provincia del Ogro y de su hermano, que, aunque no ha banqueado aún a nuestra costa -dad tiempo al tiempo-, se muestra igual de feroz que el señor Amoros. En ellas, uno y otro tienen la osadía de tratar de "brigantes" y "cuadrillas de salteadores" a las tropas de corsarios de tierra organizadas por el gobierno legítimo y que, procedentes de Navarra, hace pocos días han irrumpido en Oyarzun, Ataun y Beasain para combatir a vuestros enemigos.

Desoid, pues, cuanto os digan a ese respecto y considerad a estos corsarios de tierra como lo que en realidad son: el germen de nuevos ejércitos como los que ahora se agrupan en Portugal y que, ocurra lo que ocurra en los próximos meses o años en la Europa, acabarán por derrotar a estos que tan cruelmente nos oprimen y que son los únicos y verdaderos ladrones que hay en Guipúzcoa a fecha de hoy, ya que, como bien lo sabéis, nada han dejado sin robar.

Por hoy me despido de vosotros, pero contad con que volveréis a saber en próximas fechas de esta Bayoneta que sólo trae noticias verdaderas.

